

## DONOSTIAKO 2019ko INAUTERIAK

### INAUTERIETAKO JANTZIEN DISEINUEN I. SARIA

**2019ko martxoaren 2a - 21:01 - Ilunbe**

Donostia / San Sebastián Festak-ek, Donostiako Modaren Klusterrarekin batera eta Garbera merkataritza zentroaren babesarekin batera, 2019ko Inauteriak direla eta, "Inauterietako Jantzien Diseinuen I. Saria" antolatu du. Saria honako oinarri hauek arautuko dute:

### OINARRIAK

#### - 1. PARTE HARTZAILEAK

Otsailaren 28an, 21:01ean, Ilunben egingo den konpartsen aurkezpen ekitaldian parte hartuko duten 2019ko Donostiako Inauterietako konpartsa guztiek, saria lortzeko aukera izango dute.

#### - 2. PARTE HARTZEKO JARRAIBIDEAK

Inauterietako Konpartsen aurkezpenean parte hartzen duten konpartsek Inauterietako larunbateko eta igandeko desfileetan erabiliko dituzten arropak aurkeztu beharko dituzte.

Konpartsero taldeen arropak eta karrozan joango direnenak edo aurkezpenari kolorea ematen dioten beste arropa berezi batzuk aurkeztu ahalko dituzte, betiere konpartsak 2019ko Inauterietako Konpartsa eta Karrozen Lehiaketan parte hartzeko aukeratu duen gaiarekin zerikusia badute eta larunbateko eta igandeko desfileetan erabiliko badira.

Ezingo dira aurkeztu aurkezpenerako bakarrik sortutako arropa bereziak. Hala bada, erakundeari jakinarazi beharko zaio, ekitaldia baino astebete lehenago (otsailaren 21a) eta Epaimahaia erabakia hartzeko zer arropa ez duen aintzat hartu behar zehaztu beharko da.

#### - 3. EPAIMAHAIA.

Hiru sariak erabakiko dituen epaimahaia osatuko duten pertsonak hauek dira:

- .-Ernesto Gasko, Alkate ordea
- .-Alfonso Gurpegui, Festak Zinegotzia
- .-Laura Chamorro, Donostiako Modaren Klusterra
- .-Nuria Vegas, Garbera Merkataritza Zentroa
- .-Iñigo Garbi, SSShops

Epaimahaiak honako hauek baloratuko ditu: trajeen estetika eta originaltasuna, koloreak, diseinuak hautatutako gaia nola islatzen duen...

## - 4. SARIAK.

Emango diren hiru sariak Donostiako oihal dendetan erosteko txartelak izango dira:

- 1. saria: 2.000 €ko txartela
- 2. saria: 1.000 €ko txartela
- 3. saria: 1.000 €ko txartela

Sari hauen irabazleak Ilunbeko konpartsen aurkezpena amaitutakoan jakinaraziko dira eta han bertan banatuko dira.

## - 5. UKO EGITEA

"Inauterietako Jantzien Diseinuen I. Sarian" parte hartzea librea da. 2019ko otsailaren 28an Ilunben izango den Konpartsen Aurkezpenean parte hartuko duten konpartsa guztiek sarian parte hartuko dutela ulertzen da. Konpartsaren batek parte hartu nahi ez badu Donostia/San Sebastián Festak-eri jakinarazi beharko dio, otsailaren 21a baino lehen. Bere ukapen erabakiaren jakinarazpena posta elektronikoaren bidez, Festak-en bulegoan aurkeztutako idatzi baten bidez edo beste bide frogagarri batez egin daiteke.

## - 6. INTERPRETAZIOA ETA EPAIA

Oinarri hauen inguruan dauden zalantzak argitzea Sariaren antolakuntzari dagokio. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

Donostia / San Sebastian, 2019ko urtarrila